

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BARAKALDOKO UDALAREN INTEGRAZIO SOZIO-KULTURALERAKO ZENTROAREN ETA BAKEA EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta Integrazio Soziokulturalerako Zentroaren (ISZ) Kudeaketari buruzko txostena mamitu du. Txostena 2010eko martxoaren 4an HKEEren Osoko kideek aho batez onetsi dute.

1999ko abenduaren 23an ekipamendu hau jaso zenetik, Udalak ISZn ematen diren zerbitzuak zeharka kudeatu ditu bi aldi bereizitan egindako esleipenetan prozedura ireki bitartez eta lehiaketa publikoa deituta hautatutako enpresen bidez.

2000ko ekainaren 30ean egin zen lehenengo esleipenak ISZn emandako zerbitzuen kudeaketa eta ustiaketa barne hartzen zituen, kudeaketa interesatuaren moldea erabilita, udalaren urteko gehiengo ekarpena 904 mila eurokoa izanik. Bigarren esleipena 2007ko otsailaren 7an egin zen bi urteko aldirako, beste bitara luzagarria eta horren xedeak Barakaldoko Los Hermanos eta Bakea Eguneko Zentroaren ISZ osatzen duten zerbitzuen kudeaketa eta ustiaketa besarkatzen ditu; horretarako, kudeaketa interesatuaren moldea erabili zen eta udalaren urteko gehiengo ekarpena 1.424 mila eurokoa izan zen.

HKEEren lana bi kontratazio espedienteen fase ezberdinak aztertzea izan da, ezargarria zaion araudia bete dela eta kontratuen exekuziotik eratorritako alderdi ekonomikoak egiaztatuz, kontratua amaitu bitartera arte batean, eta 2008ko abenduaren 31ra arte bestean.

HKEEren txostenak ondorio sorta zabala jaso du bi esleipenei dagokienez; hona hemen adierazgarrienak:

Lehenengo esleipena:

- 2001eko ekitaldian kontratistari instalakuntzak hobetzeko lanak eta ISZren eraikinaren egokitzapena esleitu zitzaizkion, zerbitzu kudeaketaren kontratuan aurreikusi gabe zeudenak, 577 mila euroko zenbatekoarekin, APKLTBren 11.1 artikuluan legez aurreikusi gabeko prozedurak saihestuz.
- 2006ko ekainaren 30etik (kontratuaren amaiera data) 2007ko martxoaren 9ra bitartean (kontratu berria gauzatu zeneko data), aurreko kontratua exekutatzeko jarraitu da Udalaren aldetik aparteko luzapenerako berariazko erabakirik izan gabe eta 915 mila euroko gastua erregistratua izanik eta, honenbestez, APKLTBn ezarritako prozedura alde batera utzita.
- Esleipen hartzaile den enpresak administrazioarekiko hainbat auzi-errekurtso jarri ditu Udalak uko egindako hainbat erreklamazioren ondorioz; horiek kontratistaren alde ebatziko balira, Udalak 1.737 mila euro ordaindu beharko litzioke, beste 214 mila euroko zenbateko batez gain, Bilboko 4 zk.ko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak jada ordaintzera zigortu duen errekurtso baten ondoriozkoa.

HKEEK lehenengo esleipen honi dagokionez ondorioztatu du nahiz kontratua iraungia dagoen gaurko egunean Udalak bere garaian kontratua desegiteko prozedura abiarazteko aukera aztertu behar zukeela, Administrazio Klausula Partikularren Pleguan (AKPP) kontratua bertan behera uzteko arrazoen izatea balioztatu ondoren.

Bigarren esleipena:

- Los Hermanos ISZko kafetegi eta jatetxearen ustiapena zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratuaz besteko prestazioa da eta administrazio kontratu berezi baten xedea barne hartzen du; honenbestez, espedientean horren gaineko erregulazio berezia jaso behar litzateke. Ildo honetan beretan, Kultur zentro plurifuntzional deiturikoaren kudeaketaren esleipena, erabiltzeko lagatako ondasunen ustiaketa barne hartzen duenak, Baldintzen pleguetan aipatutako ustiaketa alderdi juridiko zein ekonomikoak batere arautu gabe gauzatu da.

- Bakea Eguneko Zentroa kudeatu eta ustiatzeko esleipena eraikina erabilgarri izan gabe eta hori abian jartzeko BFAREN baimen administratibo nahitaezkoa izan gabe gauzatu zen. Honela, bada, nahiz eraikina kontratistaren esku utzi den 2009ko ekainaren 1ean, txosten hau idatzi dugun datan izenpetzeko dago BFAREkin lankidetzaren hitzarmenaren sinadura. Bai kasu honetan, bai Los Hermanos ISZko etxebizitza komunitarioaren Zentroan, 2008ko urritik aurrera okupatu dena, kontratua izenpetu zenetik hilabeteko epean zerbitzuari ekiteko betebeharra urratu da, AKPPetan aurreikusitakoa urratuz.
- 2008ko martxoko udal teknikarien txostenaren arabera, ezin ziurta daiteke esleipen hartzaile izan den Aldi Baterako Enpresen Elkarte (ABEE) osatzen zutenetako batek Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan eguneratua zegoenik, eta litekeena da APKLTBn aurreikusitako kontratatzeko debekuan erori izana.
- ABEEK enpresa talde bereko enpresekin zerbitzuaren birkontratazioak % 73 egiten du, Artekariak 2008ko azaroan egindako txostenaren arabera eta horrek AKPP eta APKLTBren bi artikulua urratzen ditu, % 50ean ezartzen baitu azpikontratatzeko muga.
- Kontratua osatzen duten helburu bakoitzaren gaineko xehetasuneko ustiapen proiekturik ez izateak eta kontratutik eratorritako sarrera guztiak barne hartzen ez dituen azterketa ekonomiko administratiboa onartu izanak, ezinezkoa egiten du kontratuaren kontra-prestazioen hasierako orekari buruzko irizpena ematea.

Bigarren esleipenari dagokionez, HKEEK amaitu du esanez Udalak Txostenean aipatutako akatsak aintzat hartuta kontratua bertan behera uzteko prozedurari ekiteko aukera aztertu behar lukeela, AKPPetan aurreikusitako kontratua ebazteko arrazoiak daudela oinarri hartuz.

Azkenik, Txostenari hainbat Eranskin argigarri txertatu zaizkio.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas